

LABek ez du parte hartuko bihar burutuko den segregazio mahaiaren bileran Jaurlaritzak Hezkuntza Legearen aldeketasuna inposatu nahi baitigu

Hirugarren bileran segregazioari aurre egiteko printzipio eta balioak landu baziren ere, Jaurlaritzak eragileok bertan landutakoak baztertu ditu eta Hezkuntza Legeak jasotzen dituen printzipioak aurkeztu ditu 2. fasearen ondorioztat

Segregazio Mahaiaren laugarren bilera burutuko da bihar Gasteizen. Bertan, Hezkuntza Sailak 2. fasea bukatutzat emango du eta 3. faseari ekingo dio, eskola-segregazioari aurre egiteko garatuko diren lan-lerroak eta proiektuak definitzearen faseari, alegia.

Azaroaren 12an gogorarazi eta salatu genuenez, Hezkuntza Sailak aldebakarrez onartu zuen segregazioaren diagnostikoaren dokumentua. Bada, oraingo honetan, printzipioen fasea ere aldebakarrez itxi du, Jaurlaritzak hezkuntza eragileoi Hezkuntza Legearen aldeketasuna inposatu nahi digularik. Kasu honetan, gainera, inolako lotsarik gabe azaroaren 12an mahaiaren parte hartu genuen eragileok segregazioari aurre egiteko printzipio eta balioen lanketari egin genizkion ekarpenak guztiz baztertu ditu eta Hezkuntza Legearen printzipioak aurkeztu ditu ondorioztat.

Jaurlaritzaren helburu bakarra eragileak mahaiaren parte hartzen ari direla irudikatzea izan da. Izan ere, segregazioaren mahaiko bigarren bileran eragile askok metodologia kritikatu izanaren ondorioz, inprobisazioari helduz metodologia guztiz aldatu zuten, helburu bakar gisa parte hartzea zuen metodologia planteatuz azken bileran.

Alabaina, metodologia aldatu eta eragileok talde txikietan gure proposamenak azaldu eta eztabaidatu genituen arren, emaitza bestelakoa izan da, printzipio eta balioak aldebakarrez inposatzea. Badirudi edukiek ez zutela axola. Segregazioari aurre egiteko muinari heldu gabe, soilik PNV eta PSEk onartu zuten Hezkuntza Legea eragileoi saltzea izan da asmoa.

LABek publikoki aurkeztu zituen bere proposamenak, dekalogo batean jaso zituenak, eta mahaira eramanez, gaur gaurkoz, inolako eztabaidarik gabe eta maltzurki ezkutatu eta baztertu egin direnak.

Hortaz, Jaurlaritzaren aldebakartasuneko jokaera honen aurrean biharko bileran ez parte hartzea erabaki du LABek. Izan ere, seguruenik Hezkuntza Sailak bileraren emaitza gisa iragarriko baitu 2. fasea, printzipio eta balioena, itxi eta bukatu egin dela Hezkuntza Legeak jasotzen dituen printzipioetan fokua jarritz. Eta LABek ez du onartuko mahaiaren ekarpenak egiten egon eta hauek aldebakarrez bazterteaz gainera, Jaurlaritzak maltzurki nahi duen errelatoa inposatzea.

Berrir ere Jaurlaritzari exijitzen diogu itxurakeriak uzteko eta langileon ordezkari guztiokin gaiari sakontasunean heltzeko, horretarako, segregazioari aurre egiteko printzipioak eta neurri zehatzak mahai negoziatzaileetan landuz.